## LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA

## Zk-1872

69/2000 DEKRETUA, apirilaren 11koa, Euskal Herriko Ingurugiro Batzordearen osaketa eta funtzionamendua arautzeko dena.

Otsailaren 27ko 3/1998 Legeak —Euskal Herriko ingurugiroa babesteko Lege Orokorra— Euskal Herriko Ingurugiro Batzordea sortu zuen. Batzorde hori organo aholku-emailea da eta Ingurugiro arloaz arduratzen den Sailari atxikita dago; bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoan ingurugiro arloan diharduten administrazioen harremanak, parte hartzea eta koordinazioa taxutzea da organo horren egitekoa. Aipatutako legeak Batzordearen oinarrizko funtzioak ezartzen ditu eta hura osatzen duten kideak zein arlotakoak diren zehazten du.

1999-2002 legegintzaldian Jaurlaritza osatzeko, alderdi politikoek izenpetutako Koalizio-akordioaren progama-konpromisoen artean, besteak beste, gure ingurugiroarekiko errespetuzko garapen jasangarria bultzatzeko konpromezua hartu dute, horren bidez ekonomia-jarduera, aurrerapena eta Euskal Herriko herritar guztien bizi-kalitatea bultzatzeko.

Konpromezu hori abian jarri eta gauzatzeko, zenbait egintza burutu eta neurri espezifiko hartu behar dira. Horri buruz Akordioak berak aipatzen du erakundeen arteko plangintzarako prozesua bultzatuko dela, kontuan hartuz ingurugiroaren eskaerak eta eskaera sozioekonomikoak aztertu eta irtenbiderik onen eta orekatuenak aurkitu eta aplikatu behar direla sektore-area guztietan: industria, hirigintza, zerbitzuak eta ekipamendua eta abarretan. Hori dela eta, prozesu horretan funtsezkoa da Ingurugiro Esparru Programa prestatzea eta Euskal Herriko Ingurugiro Batzordea abian jartzea.

Azaldutakoa kontuan hartuta, premiazkotzat jo da, batetik, Euskal Herriko Ingurugiro Batzordearen osaketa ezarri eta zehaztea legeak ezarritako ordezkaritza-arloen artean, eta, bestetik, Batzorde horren funtzionamenduko oinarrizko arauak zehaztea, horiek beharrezkoak baitira organo aholkuemailea jardunean hasteko, beraren funtzionamendua normala izan dadin eta legeak ematen dizkion funtzioak eraginkortasunez gara ditzan.

Hori guztia dela eta, otsailaren 27ko 3/1998 Legearen —Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra— azken xedapenetako bigarrenak ezarritakoarekin bat etorriz, Eusko Jaurlaritzaren Aholku Batzorde Juridikoari entzun ondoren Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuak proposatuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2000ko apirilaren 11an izandako bilkuran aztertu eta onetsi ondoren, hau

## DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE

## N°-1872

DECRETO 69/2000, de 11 de abril, por el que se regulan la composición y funcionamiento de la Comisión Ambiental del País Vasco.

La Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, crea la Comisión Ambiental del País Vasco, como órgano de naturaleza consultiva adscrito al Departamento responsable del Area de Medio Ambiente, que se configura como un órgano de relación, participación y coordinación de las distintas Administraciones que en materia de medio ambiente actúan en la Comunidad Autónoma del País Vasco. La citada ley establece las funciones básicas de la Comisión y determina los ámbitos de representación de los miembros que la integran.

El Acuerdo de Coalición suscrito por los partidos políticos para la formación de Gobierno para la legislatura 1999-2002, incluye entre sus compromisos programáticos el impulso de un desarrollo sostenible respetuoso con nuestro medio ambiente que permita el desarrollo de la actividad económica, el progreso, la calidad de vida y el bienestar de todos los ciudadanos y ciudadanas vascas.

La puesta en marcha y materialización de dicho compromiso exige la adopción de acciones y medidas específicas, entre las que el propio Acuerdo incluye las referidas al impulso de un proceso de planificación interinstitucional que estudie las demandas medioambientales y socioeconómicas, para buscar y aplicar las soluciones óptimas y más equilibradas, contemplando todas las áreas sectoriales –industriales, urbanísticas, de servicios y equipamientos, etc.-, siendo elementos fundamentales en dicho proceso la elaboración del Programa Marco Medio Ambiental y la puesta en marcha de la Comisión Ambiental del País Vasco.

A la vista de lo expuesto se considera urgente establecer y detallar la composición de la Comisión Ambiental del País Vasco entre los ámbitos de representación señalados en la ley y determinar sus reglas básicas de funcionamiento como instrumentos previos y necesarios que posibiliten el inicio de las actividades del órgano consultivo, su normal funcionamiento y el desarrollo eficaz de las funciones que la ley le encomienda.

Por todo ello, de conformidad con lo previsto en la disposición final segunda de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, a propuesta del Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, oída la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el 11 de abril de 2000,

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Euskal Herriko Ingurugiro Batzordea Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari atxikita geratzen da. Batzorde hori otsailaren 27ko 3/1998ko Legeak sortu zuen organo aholku emaile modura, Euskal Herriko administrazioen harremanak, partizipazioa eta koordinazioa bultzatzeko ingurugiro arloan.

*2. artikulua.–* Euskal Herriko Ingurugiro Batzordearen egitekoak otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 10. artikuluan zehazten dira.

*3. artikulua.–* 1.– Euskal Herriko Ingurugiro Batzordearen buru Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburua izango da eta bokalak hauek izango dira:

a) Ingurugiro sailburuordea. Hori buruordea izango da eta buruaren funtzioak beteko ditu burua ez dagoenean edo gaixorik dagoenean.

b) Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza sailburuordea

c) Eusko Jaurlaritzaren sail hauetako sailburuorde bana: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa; Herrizaingoa; Industria, Merkataritza eta Turismoa; Osasuna; Garraio eta Herri Lana eta Nekazaritza eta Arrantza.

d) Lurralde historikoetako foru aldundietako ordezkari bana.

e) EUDEL Euskal Udalen Elkarteko bost ordezkari.

2.– Euskal Herriko Ingurugiro Batzordeko buruari eskatuta edo Batzordeak berak gonbidatuta, bozdun baina botorik gabe, Batzordearen batzarretan hauek agertu daitezke:

a) Txostena egiteko Batzordeari aurkeztutako arau-proiektu, xedapen orokor, plan edo programak eragindako Eusko Jaurlaritzaren Saileko ordezkari bat, Sail hori Batzordean zuzenean ordezkatuta ez badago.

b) Txostena egiteko Batzordeari aurkeztutako arau-proiektu, xedapen orokor, plan edo programak eragindako Foru Sailaren ordezkari bat, Sail hori Batzordean zuzenean ordezkatuta ez badago.

c) Txostena egiteko Batzordeari aurkeztutako arau-proiektu, xedapen orokor, plan edo programak eragindako Toki-administrazioaren ordezkari bat, Toki administrazio hori Batzordean ordezkatuta ez badago.

3.– Batzordeak eskatu ahal izango du bertara daitezen akordio-proposamena idazten aritutako funtzionario edo espezialistak, baita landu beharreko gaiak idazten adituak ere, aholkuak eman ditzaten.

DISPONGO:

*Artículo 1.–* La Comisión Ambiental del País Vasco, creada por la Ley 3/1998, de 27 de febrero, como órgano consultivo, de relación, participación y coordinación de las distintas Administraciones del País Vasco en materia de medio ambiente, queda adscrita al Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente.

*Artículo 2.–* Corresponde a la Comisión Ambiental del País Vasco el ejercicio de las funciones descritas en el artículo 10 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero.

*Artículo 3.–* 1.– La Comisión Ambiental del País Vasco, estará presidida por el/la Consejero/a de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, y formarán parte de la misma los siguientes vocales:

a) El/La Viceconsejero/a de Medio Ambiente que actuará como Vicepresidente/a, ejerciendo las funciones de Presidente/a, en los supuestos de ausencia o enfermedad de éste/a.

b) El/La Viceconsejero/a de Ordenación del Territorio y Vivienda.

c) Una persona con rango de Viceconsejero/a en representación de cada uno de los siguientes Departamentos del Gobierno Vasco: Educación, Universidades e Investigación; Interior; Industria, Comercio y Turismo; Sanidad; Transportes y Obras Públicas; y Agricultura y Pesca.

d) Una persona en representación de la Diputación Foral de cada uno de los Territorios Históricos.

e) Cinco representantes de la Asociación de Municipios Vascos-EUDEL.

2.– Podrán asistir a las reuniones de la Comisión Ambiental del País Vasco, con voz y sin voto, previa solicitud expresa al Presidente/a de la Comisión, o mediante invitación de la propia Comisión:

a) Una persona en representación del Departamento del Gobierno Vasco afectado por el proyecto normativo o de disposición general, plan o programa, sometido a informe de la Comisión, si no estuviera representado directamente en la Comisión.

b) Una persona en representación del Departamento Foral afectado por el proyecto normativo o de disposición general, plan o programa, sometido a informe de la Comisión, si no estuviera representado directamente en la Comisión.

c) Una persona en representación de la Administración Local afectada directamente por el proyecto, plan o programa, sometido a informe de la Comisión, si no estuviera representado directamente en la Comisión.

3.– La Comisión podrá recabar la presencia de funcionarios/as o especialistas que hayan intervenido en la redacción de la propuesta de acuerdo, así como de expertos en relación con los temas a tratar, al objeto de prestar su asesoramiento.

4.– Ingurugiro Baliabideen zuzendaria izango da Euskal Herriko Ingurugiro Batzordearen idazkari, bozdun baina botorik gabe.

5.– Ingurugiro Baliabideen Zuzendaritzak laguntza teknikoa emango dio Euskal Herriko Ingurugiro Batzordeari gaiak eta dokumentazioa prestatzeko.

6.– Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak eta Euskal Herriko Ingurugiro Batzordean ordezkaritza duten sail, erakunde eta administrazio publikoek ordezkari titular bana izendatuko dute, baita titularraren ordezkaria ere, titularra ez dagoenerako eta titularra gaixorik dagonerako edo arrazoi egiaztatua duenerako

7.– Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak eta gainontzeko sailek ordezko izendatutakoek sailburuorde edo zuzendari kargua izan dezakete. 1.a) idatz-zatian aurreikusitako suposamenduan, izendatutako ordezkariak Ingurugiro sailburuordeari dagozkion funtzioak baino ez ditu izango, eta ez da buruordea izango eta ez du burua ordezkatuko.

*4. artikulua.*– Euskal Herriko Ingurugiro Batzordeak atalak eratzea erabaki dezake aztertu beharreko zenbait gairen izaeragatik kide guztiak bertaratu behar ez dutenean.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Batzordeak bere barne-funtzionamenduari buruzko arauak onetsi artean, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen —Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea— 22. artikulutik 29.era arteko xedapenen arabera araupetuko da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten da urtarrilaren 10eko 28/1989 Dekretua, Euskal Herriko Ingurugiro Batzordea eratzeari buruzkoa.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehena.*– Baimena ematen zaio Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuari behar diren xedapenak eman ditzan Dekretu honetan xedatutakoa garatu eta betetzeko.

4.– Ejercerá las funciones de Secretario/a de la Comisión Ambiental del País Vasco, con voz pero sin voto, el/la Directora/a de Recursos Ambientales.

5.– El apoyo técnico a la Comisión Ambiental del País Vasco, en lo relativo a la preparación de asuntos y documentación, corresponderá a la Dirección de Recursos Ambientales.

6.– El Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente y los demás Departamentos del Gobierno Vasco, Entidades y Administraciones Públicas representados en la Comisión, designarán para cada una de las representaciones que les corresponden, un/una representante titular y un/una representante suplente, que sustituirá al/la titular en los casos de ausencia, enfermedad u otra causa justificada.

7.– Los/Las representantes designados/as por el Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, y por el resto de los Departamentos del Gobierno Vasco, en calidad de suplentes, podrán ostentar el cargo de Viceconsejero/a o de Director/a.. En el supuesto previsto en el apartado 1 a), el representante designado como suplente ejercerá únicamente las funciones que le corresponden al Viceconsejero/a de Medio Ambiente como vocal de la Comisión, sin actuar como Vicepresidente/a ni suplir al Presidente/a.

*Artículo 4.*– La Comisión Ambiental del País Vasco podrá acordar la constitución de Secciones para tratar determinados asuntos, que no requieran por su naturaleza la presencia de la totalidad de miembros de la Comisión.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

En tanto en cuanto la Comisión no apruebe sus normas de funcionamiento interno, se regirá por las disposiciones contenidas en los artículos 22 a 29 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado expresamente el Decreto 28/1989, de 10 de enero, por el que se constituye la Comisión Ambiental del País Vasco.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se autoriza al/la Consejero/a de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución de lo dispuesto en el presente Decreto.

*Bigarrena.–* Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2000ko apirilaren 11n.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza
eta Ingurugiro sailburua,
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA.

# Bestelako Xedapenak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-1873

EBAZPENA, 2000ko apirilaren 7koa, Hezkuntza sailburuordearena, fondo publikoekin ordaindutako Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen 2000-2001 ikasturterako eskola-egutegia egiteko arautegia zehazten duena.

Ikastetxeek, beren autonomiaz baliatuz, haien irakaslanak planifika eta antolatzen dituzte. Urte barruan irakaslan horiek burutzeko, beharrezkoa da ikasturte bakoitzeko eskola-egutegia finkatzea.

Eskola-egutegi hauek burutu eta onartzeko kontutan hartu behar diren oinarrizko arauak zehazteko eskuduntza dauka Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, ikastetxeen autonomia errespetatuz, beharrezkoa den antolakuntza eta pedagogi koherentzia bermatzeko.

Horiek horrela eta eman zaizkidan eskuduntzez baliatuz, honako hau

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
XEDEA ETA EZARPEN-EREMUA

*1. artikulua.–* Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta itunpekoetan, 2000-2001 ikasturterako eskola-egutegia burutzeko arauak finkatzea da ebazpen honen xedea.

*2. artikulua.–* Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-mailetako araubide

*Segunda.–* El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 11 de abril de 2000.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda
y Medio Ambiente,
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA.

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-1873

RESOLUCIÓN de 7 de abril de 2000, del Viceconsejero de Educación, por la que se fijan las normas que han de regular la elaboración del calendario escolar, para el curso 2000-2001, de los centros docentes de los niveles no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco sostenidos con fondos públicos.

Los centros docentes en ejercicio de su autonomía organizan y planifican sus actividades escolares. El desarrollo temporal de las mismas exige la fijación de un calendario escolar para cada curso académico.

Corresponde al Departamento de Educación, Universidades e Investigación fijar las normas básicas que han de tenerse en cuenta en la elaboración y aprobación de estos calendarios, en orden a garantizar la necesaria coherencia pedagógica y organizativa compatible, en todo caso, con la autonomía de los centros.

En su virtud, y en uso de las facultades que me han sido otorgadas,

DISPONGO:

CAPÍTULO I
OBJETO Y ÁMBITO DE APLICACIÓN

*Artículo 1.–* Es objeto de la presente Resolución fijar las normas que han de regular la elaboración del calendario escolar para el curso 2000-2001 en los centros docentes públicos y privados concertados de niveles no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 2.–* La presente Resolución será de aplicación en todos los Centros docentes públicos y privados